



## **Teknologian aitzindari diren enpresek IKTetako gaur egungo joerak aurkeztuko dituzte Euskaltelen eskutik**

- *Otsailaren 13tik 17ra, euskal operadoreak 'IKTen III. Astea' egingo du: nazioartean aitzindari diren bost konpainiak joera teknologiko nagusiak eta digitalizazioak enpresei ezartzen dizkien erronkak azalduko dituzte.*
- *FORTINET, ARUBA, MICROSOFT, RED HAT eta COMMVAULTeko adituek beren ikuspegi estrategikoa azalduko dute partaidetza- giroan emango diren onlineko zenbait saio arin eta doakotan. Aurrez, izena eman behar da hemen: [Izen-ematea - III. edizioa - IKT-joeren Astea](#)*
- *Euskaltelek enpresei beren digitalizazio-prozesuetan laguntzen jarraitzen du, beren lehiakortasuna hobetu dezaten edozein egoeratan.*

**Bilbon, 2024ko otsailaren 27an.-** Datorren astelehenetik (martxoak 4) ostiralera arte (martxoak 8), IKTen joera nagusiei eta enpresek digitalizazioaren ondorioz dituzten erronkei buruzko ikuspegi estrategikoa eskainiko dute teknologiaren arloan munduan aitzindari diren zenbait konpainiatako adituek Euskaltelek antolatutako "IKT-joeren III. astea"-ren esparruan, formatu digitaleko ekitaldi arin eta partizipatibo batean.

Jardunaldiak 30 minutuko bost saiotan banatuko dira, eta munduko punta-puntako zenbait konpainiatako adituek zuzenduko dituzte egunero; besteak beste, FORTINET, ARUBA, MICROSOFT, RED HAT eta COMMVAULTekoek.

Adituok, astelehenetik ostiralera eta hurrenkera horretan, garai berriotako IKT-joera nagusiak azalduko dituzte, eta enpresek digitalizazio-prozesuen ondorioz dituzten erronketarako soluzioak aurkeztuko.

Adituek beren ikuspegi estrategikoa eskainiko dute, erabakiak hartzen laguntzeko eta IKTen sektorean aurre egin behar zaien erronka garrantzitsuenei aurrea hartzeko.

Saioak arinak, partizipatiboak, onlinekoak eta doakoak izango dira, eta aurrez izena eman behar da hemen: [Izen-ematea - III. edizioa - IKT-joeren Astea](#).

Hala, Euskaltelek euskal enpresei beren digitalizazio-prozesuetan laguntzen jarraitzen du, beren lehiakortasuna hobetu dezaten edozein egoeratan.

### **Microsoft Teams-en bidezko saioak**

Lehen saioa **FORTINET**eko Cristian Bermejok eta Iñaki Quintanillak emango dute. Hodeiko segurtasunaren etorkizuna aurkeztuko digute, eta gerta daitezkeen mehatxuen berri emango denbora errealean.

Asteartean, hilak 5, **ARUBA**ren txanda izango da. Jardunaldi horretan, Ángel de la Encarnaciónek NIS2 Zuzentaraua aztertuko du, hau da, zibersegurtasunaren arloko EBko legeria, eta IoT inguruneek etorkizunean izango duten eragina erakutsiko digu.

Hirugarren saioa **MICROSOFT**ek gidatuko du, Antonio Cruzen esku-hartzearekin, eta Copilot-ek erakundeei eta haien IT-arduradunei ekartzen dizkien erronketan eta ematen dizkien aukeretan sakonduko du.

**RED HAT**, Marcos Paredes adituarekin, arduratuko da osteguneko jardunaz, “Desktop As a Service” soluzioa ezagutzera emateko, zeinak telelaneko edo lan deslokalizatuko inguruneak ahalik eta formarik onenez hornituko baititu.

Azkenik, ostiralean, hilak 8, IKTen III. asteari amaia emateko, **COMMVAULT**en txanda izango da, Juan Esquivelen eskutik. Negozioen erresilientzia indartzeko ikuspegi berri bat eskaintzen saiatuko da.

Saio bakoitza amaitzeko, galdera-txanda bat egingo da. Parte-hartzaileek adituekin hitz egin ahal izango dute, eta hitzaldian sortutako zalantzak eta galderak azaldu.

**Informazio gehiago:** [III. edizioa - IKT-joeren Astea - Euskaltel](#)

**Euskaltel Komunikazioa**  
[komunikazioa@euskaltel.com](mailto:komunikazioa@euskaltel.com)